

# KULTURKRITIKA

» LIBURUA

## Storniren suizidioa



Igor Estankona



### Poema antologia

ALFONSINA STORNI

Susa, 2017

Uxue Alberdik itzulia, *Munduko Poesia Kaieren* 20. zenbakia borobil horietakoa da. Maitasun poemak, desesperazio poemak, zorion poemak, heriotza poemak. “Nire zai-netan barna habil. Patxadatsu sentitzen haut irristatzen. Lokietako, samako, ukabiletako arterietan bermatzen ditiat hatzak, hi haztatu nahian”.

Stornitarrak suitzar emigranteak izan ziren Argentinan. Hala izan dira hainbat suitzar jatorrikoak, Hego Ameriketako herrialdean: Francisco Righetti arkitektoa, Myriam Stefford aktorea, Juan Imhoff –2015eko errugbiko munduko txapelketan laugarren-. Errepublikako bi presidente ere bai: Pellegrini, Kirchner.

Storni aita alkoholak harrapatu bizi izan zen eta gazte hil zen. Auzo pobreetako errezitatzaile, hizlari bikain, katedradun, Alfonsinaren poesiak zapaldu zituen alfonbrak eta lurrezko zoruak. *La inquietud del rosal* (Arrosondoaren ezinegona) ederto jarri zion 1916ko *opera primari*, izan ere, artega baitzebiltzan kontzientziadun emakumeak garai hartan, langabeak eta ezkon aurrean ama zirenak, hain zuzen argumentu bihurtuz bizitza bera, kapitalismo berria bera: “Etxe lerrokatuak, etxe lerrokatuak,/ etxe lerrokatuak./ Karratuak, karratuak, karratuak,/ etxe lerrokatuak./ Jendeak karratua du ja arima,/ ideiak lerrokatuak/ eta angelua bizkarrean”.

Eta gorputza ere bihurturik guda zelai, Stornik kantatu zion amodio ez-erromantikoari, ez-arrosari, baizik eta natural eta, finean, klasikoari: “Hara non harrapatu hindudan lepotik, [Eros]/ itsasertzean, hire buirakako geziak/(...)/ eta urrezko txirri-

ketan ondo bildurik/ lakio bat kausitu nian, zioena: sexua”.

Modernista bihurtzen du honek guztiak Alfonsina Storni? Esateko modu bat da. Storni desaktibatze modu bat da. Lapitza, berari “kanoi txiki eta sendoa” iruditu zitzaion hori, erabili izan da esateko Alfonsina Storni neurosiak jotako izaki sentibera modernista izan zela, ardi galdua arean, puri-purian zegoen Argentina hartako beste ikono bat. Suizidioa ere horrelaxe: 1935ean minbizia diagnostikatu zioten, eta Mar del Platan ozeanora burua botata hil zen. Egin daiteke hortik idolatria bat, oharra eta guzti utzi zuen-eta. Edo lot daiteke Horacio Quirogaren heriotzarekin bere heriotza, matxismo ariketa bat gehiago eginez. Edo esan daiteke, hobe, bizitza bakoitzarena dela sinesten zutenetakoa zela, eta liburu eder hau irakurri bere osasunean, irakurtzen diren bezala libertadore handien obrak. ■

*Alfonsina Storni poeta (Capriasca, Suitza, 1892 - Mar del Plata, Argentina, 1938).*

